

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

1167

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 22koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2023. urtean langile autonomoen artean Laneko Arriskuen Prebentzioan prestakuntza sustatzeko deialdia egin eta dirulaguntzak arautzen dituen.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak badaki langile autonomoen kolektiboan laneko arriskuen prebentzioaren gaineko prestakuntza eta kualifikazioa beharrezkoak direla.

Bestalde, Langile Autonomoaren Estatutuaren 20/2007 Legearen 8. artikuluko 2. puntuan ezarzen duenez: «Administrazio publiko eskudunek prebentzio-arloko prestakuntza espezifikoa eta langile autonomoen berezitasunei egokituia sustatuko dute».

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen 2023. urteko Kudeaketa Planean ezarritako helburuen barruan dago kolektibo horretan laneko arriskuen prebentzioa sustatzea. Horretarako, langile autonomoen sektorean prestakuntza sustatu nahi da, helburu honetan inplikatur kolektibo profesional horrekin lan egiten duten ahalik eta elkarte profesional, erakunde sindikal eta irabazi-asmorik gabeko erakunde gehien.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak hainbat eginkizun ditu, behar-beharrezkoak direnak laneko osasuna, higiena eta segurtasuna sustatzeko eta prebentziko bere helburuak betetzeko. Horretarako, langile autonomoen prestakuntza sustatu eta indartzen du, deialdi honetan eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen 2023. urterako Plan Estrategikoan jasotako dirulaguntzaren bidez.

Dirulaguntzen plan estrategikoa Osalanen zuzendari nagusiaren 2023ko urtarrilaren 17ko Ebazpenaren bidez onartu zen. Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen web-orrian argitaratuta dago, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 8.1 artikuluko baldintzak betetzen ditu.

Printzipio horien ildotik, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legean jasotakoarekin, eta onetsitako gastu-kredituaz baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak emango dituen dirulaguntzen deialdia egitea eta dirulaguntza horiek arautzea, 2023ko ekitaldian langile autonomoen artean Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko prestakuntza sustatzera bideratutako jarduerak garatzeko, hurrengo artikuluek xedatutakoari jarraikiz.

2. artikulua.– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Ebazpen honetan araututako laguntzak bateragarriak dira administrazio honek, beste administrazio batzuek edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuek helburu bererako eman ditzaketenekin. Edonola ere, erakunde onuradunek Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari jakinarazi beharko diote dirulaguntza horiek eskuratu izana.

2.– Emandako laguntza eta dirulaguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu egindako jardueraren kostu osoaren % 100, jarduera horrexetarako diren beste dirulaguntzak edo finantzatutako ekintza horretan bertan lortutako diru-sarrerak ere kontuan hartuta.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Ebazpen honen xedera bideratutako baliabide ekonomikoak Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen 2023. urterako aurrekontuen IV. kapituluan ezarritako aurrekontu-kreditutik etorriko dira, eta berrogei mila (40.000) euro izango dira, 31130 programako IV. kapituluaren bitartez bideratuta.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Ebazpen honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira langile autonomoen elkarte profesionalak, erakunde sindikalak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

5. artikulua.– Erakunde onuradunen baldintzak.

1.– Ezingo dira onuradun izan zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituzten erakundeak, ez Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan xedatutako beste debeku-egoeraren batean dauden erakundeak. Baldintza horiek eskatu ahal izango dira bai onuradun izateko, bai onuradun izaten jarraitzeko lortutako dirulaguntza likidatu arte.

2.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluko 4., 5. eta 6. zenbakietan zehaztutakoa bete beharko dute erakunde eskatzaileak.

3.– Laguntza-eskabidea aurkezten duen erakundeak, eskatzaileak berariazko baimena emango du Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak zuzenean eskura dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, azaroaren 17ko 38/2003 Legea arautzen duen Erregelamenduaren 18. eta 19. artikuluetan jasotako inguruabarren egiaztapena (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori). Kasu horretan, eskatzaileak ez ditu ziurtagiri horiek aurkeztu beharko. Hala ere, eskatzaileak berariaz aurka egin ahal izango dio baimen horri eta, hala eginez gero, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, aipatutako erregelamenduen artikulua jakin horietan aurreikusitako baldintzetan.

6. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau indarrean denean hasiko da, hau da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik 2023ko azaroaren 1era arte, edo, bestela, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak zuzendari nagusiak deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak agortu direla eta eskabideak aurkezteko epea amaitu dela jakinarazten duen ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunera artekoa.

7. artikulua.– Eskabideak formalizatzea eta aurkeztea.

1.– Honako helbide honetan daude eskuragai izapideak egiteko jarraibideei buruzko administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak, bai eta eskabidearen formularioa ere:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0048104>

2.– Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak (sarbidea, izapidea eta jarraipena) «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Eskabidea elektronikoki izapidetu ahalko da, ordezkariaren bidez. Horretarako, ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatu ahal izango da, honako helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide hauetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

5.– Izapidetze elektronikoa hemen dago araututa: 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoarena; eta 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariarena, Informatika eta e-administrazioarako plataforma teknologikoa -Platea- onartzen duena. Eskabidea, eransten zaion dokumentazioarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialetako edozeinetan aurkez daiteke. Halaber, prozedura guztian zehar, erakunde eskatzaileak aukeratu duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutako moduan.

6.– Formulario elektronikoko normalizatuko eskabideak aukera hau ematen du: laguntza eskatzen duten erakundeek berariaz baimena ematea organo kudeatzaileari nortasun-agiri nazionalaren (NAN) datuak edo identifikazio fiskaleko zenbakiari (IFZ) buruzkoak eta erregistro ofizialetako datuak eskura edo egiazta ditzan, laguntzak kudeatzeko ondorioetarako bakarrik, hargatik eragotzi gabe administrazio publikoak datuok egiaztatze, kontrolatzeko eta ikuskatzeko duen ahalmena. Hala ere, erakunde eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, halakorik egiten baldin badu, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. Baimena isilbidez emantzat joko da, baimen hori berariaz ukatzen ez bada.

7.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikuluan ezarritzen duena aplikatuz, betebeharrak hauek egiaztatuko dira, eskabideari erantsitako erantzukizunpeko adierazpen baten bidez:

a) Erakunde eskatzaileak ez duela administrazio- edo zigor-arloko zehapenik, laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzeko aukera galarazten dionik, edo ez dagoela sartuta legezko debekuren batean, dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galarazita, sexu-arrazoien ziozko diskriminazioetatik sortu diren horiek barne.

b) Erakunde eskatzaileak egunean duela dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, eta ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritzen duen onuradun izateko galarazpenen batean sartuta.

c) Erakunde eskatzaileak prebentzio-modalitate bat eskatu duela, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak jasotakoaren arabera, eta arriskuen ebaluazioa egin duela edo egiten ari dela.

8.– Eskabidearekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Erakunde eskatzaileak legez eratuta egon beharko du, eta erakundearen legezko ordezkariak ordezkartza-ahal nahikoa justifikatu beharko du, agiri hauek erantsita:

– Erakundearen fundazio-eskrituren eta estatutuen kopia eskaneatua edo, bestela, erre-gistro-ziurtagiri ofiziala, legez eratuta edo dagokion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzeko.

– Ordezkaritza-ahal nahikoa egiaztatzeko notario bidez legitimatutako izenpea duen dokumentu publiko edo pribatuaren kopia eskaneatua. Erakundearen ziurtagiri elektronikoa batekin identifikatzen bada, ez da beharrezkoa egiaztatzea ordezkartza-ahal nahikoa duela izapideak ziurtagiriaren titular den erakundearen izenean egiteko.

b) Eskatutako prestakuntza-jardueren deskribapena, I. eranskineko ereduaren arabera.

c) Eskatutako prestakuntza-jardueraren aurrekontu ekonomikoa, II. eranskineko ereduaren arabera.

8. artikulua.– Eskabideak zuzentzea.

1.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aurkeztu beharreko eskabideek eta dokumentuek ez badituzte betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzak, edo haien edukia ez bada nahikoa, 10 eguneko epean gabezia hori zuzentzeko edo eskatutako dokumentuak aurkezteko eskatuko zaio erakunde eskatzaileari, eta horrela egin ezean eskabideari uko egin diola ulertuko dela adieraziko zaio, Administrazioak berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ondoren, betiere.

2.– Akatsak zuzentzeko jakinarazpena elektronikoki egingo da. Jakinarazpenak «Nire karpeta» atalean kontsultatu daitezke: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikoa: (<https://www.euskadi.eus/egoitza>). Jakinarazpen hori egindakotzat joko da, interesdunak jaso izana elektronikoki izenpetzen duenean. Jakinarazpena bidali eta hamar eguneko epean interesdunak ez badu edukia eskuratu, ukatu egin duela ulertuko da, eta izapidea egindakotzat joko da prozeduraren arabera, non eta ez den egiaztatzen, ofizioz edo erakunde hartzaileak eskatuta, teknikoki edo materialki ezin izan dela jakinarazpen horren edukira sartu.

9. artikulua.– Jarduera diruz lagungarriak.

1.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunaren eta 2023ko azaroaren 30aren artean garatu diren prestakuntza-jarduera guztiak kontuan hartuko dira, eta nahitaez bideratu beharko dira Autonomoen Araubide Berezian alta emanda dauden langile autonomoen artean laneko arriskuen prebentzioaren gaineko prestakuntza sustatzera, betiere langile horien jarduera profesionalaren helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan badago.

2.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak aurrez aurre edo online saioetan eman ahalko dira. Online saioak «zuzeneko» saioak izan beharko dira. Horretarako, diruz lagunduko den jardueran aurreikusitako saio guztietan ikasleak eta profesionalak bertan direla bermatzeko sistema telematikoak edo aplikazioak erabiliko dira (online saio sinkronikoak).

Prestakuntza-jarduera hauek gutxienez 10 irakastordu eta gehienez 30 irakastorduko ikastaroe-tan egin beharko dira.

3.– Ikastaroek honako ikasgai hauek garatu beharko dituzte:

I.– Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko kontzeptuak.

a) Lana eta osasuna: arrisku profesionalak. Arrisku-faktoreak.

b) Lanak eragindako kalteak. Laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak. Lanak eragindako beste patologia batzuk. Osasuna eta lan-arriskuak genero-ikuspegiarekin.

c) Oinarrizko arau-esparrua lan-arriskuen prebentzioaren arloan. Arlo horretako eskubideak eta betebeharrak.

II.– Arrisku orokorrak eta horien prebentzioa.

a) Segurtasun-baldintzei loturiko arriskuak.

b) Laneko ingurumenarekin lotutako arriskuak.

c) Lan-karga, nekea eta lanarekiko asegabetasuna.

d) Arriskuen kontrolerako oinarrizko sistemak. Taldeko eta banakako babesak.

e) Larrialdi-eta ebakuazio-planak.

f) Langileen osasunaren kontrola.

III.– Arrisku espezifiko sektorialak eta horien prebentzioa.

IV.– Prebentzioaren kudeaketako oinarrizko elementuak.

a) Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako erakunde publiko eta pribatuak.

b) Prebentzio-lana antolatzea: oinarrizko errutinak.

c) Dokumentazioa: jaso, landu eta artxibatzea.

V.– Lehen sorospenak.

30 irakastordu baino gutxiagoko ikastaroek ikasleek beren lanbide-jarduera garatzen duten lanbide-sektoreen beharretara egokitu ahal izango dituzte emandako irakasgaiak, haien edukia eta irakastordu-kopurua.

30 irakastorduko ikastaroek aurrez aipatutako ikasgai guztiak jaso beharko dituzte ikasgai-zerrendan.

4.– Laneko arriskuen prebentzioaren gainean goi-mailako prestakuntza duten langileek eman beharko dituzte prestakuntza-ekintzak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen 39/1997 Errege Dekretuak VI. kapituluaren ezarritakoaren arabera edo Lan Arriskuen Prebentzioko Unibertsitate Masterra dutenek.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eskaini beharko dira prestakuntza-ekintzak, eta horien edukian eta sortutako dokumentazioan genero-ikuspegia txertatu beharko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4 eta 18.4 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

6.– Prestakuntza-ekintzen garapenarekin lotutako jarduerak partzialki edo osorik azpikontratatu ahal izango dira, artikulua honetan ezarritako baldintzak betez, betiere hertsiki beharrezkoak baldin badira prestakuntza-jarduera egiteko.

7.– Erakunde onuradunek 2 hilabeteko epean garatu beharko dituzte diruz lagundutako ikastaroak, laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita. Laguntzak emateko ebazpenak eskabideak aurkezteko hurrenkeraren arabera egingo dira, eta eskabideek ebazpen honetan ezarritako baldintzak bete ondoren. Beraz, beharrezkoa da erakunde eskatzaileek eskabideak aurkezteko datak egokitzea, eskatutako prestakuntza-jarduerak garatzeko aurreikusitako datak kontuan hartuta.

10. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako hauei dagozkie:

– Irakastordu-gastuak: irakasleek eragindako gastu guztiak, ikastaroa ematea, eduki didaktikoak garatzea, ikasleentzako dokumentazioa eta lokalak alokatzea.

– Ikastaroaren kudeaketari dagozkion gastuak: ikasleak erakartzearen ondoriozko gastuak, ikastaroaren publizitatea eta matrikulen kudeaketa.

Gehienez 325 euroko dirulaguntza emango da prestatutako ikasle bakoitzeko, baina horrela kalkulaturako zenbatekoa (325 euro x ikastaroan prestatutako ikasleak) ezingo da izan ikastaroaren ordu kopurua bider 160 euro eginda ateratzen den emaitza baino altuagoa (160 euro x ikastaroaren ordu kopurua).

2.– Inskripzio-epea irekita dagoen bitartean, erakunde eskatzaile bakoitzak eskabide bat baino gehiago aurkeztu ahal izango du, erakunde eskatzaile bakoitzari emandako laguntzen guztizkoa 20.000 euro izan arte.

11. artikulua.– Laguntzen izaera, balorazioa eta adjudikazio-proposamena.

1.– Ebazpen honetan aurreikusitako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidez gauzatuko dira.

2.– Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Zuzendariorde Tekni-koari egokituko zaio, organo instrukzio-egilea den aldetik, aurkeztu diren eskabideak aztertzea eta deialdi honetako 9. artikuluan ezarritako eskakizun espezifikoak betetzen diren egiaztatzea eta dagokion ebazpenaren proposamen arrazoitua igorriko dio Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari.

12. artikulua.– Esleipenaren ebazpena.

1.– Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak arrazoitutako ebazpen bidez esleituko edo ukatuko du eskatutako laguntza bakoitza, eskabideak aurkezteko dataren lehentasun-hurrenkerari jarraituz, eskabidea aurkezteko epea edo deialdi honen xede den laguntzarako aurrekontu-kreditua agortu arte. Ebazpen hori dagokion erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio. Erakunde interesdunei bitarteko elektronikoen bidez egingo zaizkie jakinarazpenak, Administrazio Elektronikoki buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 30. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Laguntza guztiak esleitu ondoren, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak, ebazpen baten bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du emandako eta ukatutako laguntza guztien zerrenda.

3.– Ebazpen honen babespean aurkeztutako eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, ebazpenak indarra hartzen duenetik aurrera. Epe horretan ez bada berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi, ezetsizat har daitezke eskabideak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe administrazioak berariazko ebazpena eman beharra.

4.– Adjudikazio-ebazpenaren jakinarazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ebazpen horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu dakioke Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, jakina-

2023ko martxoaren 3a, ostirala

razi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46.1 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Berariazko ebazpenik ez badago, errekurtoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, ustezko egintza gertatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera.

5.– Dirulaguntzak eman eta, hala badagokio, ordaindu ahal izateko, amaituta eduki behar dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntza publikoak itzultzeko prozedura nahiz zigor-prozedura guztiak, prozedura horiek oraindik izapide-aldian badaude behintzat.

6.– Jakinarazpen elektronikoak «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

13. artikulua.– Adjudikazio-ebazpena aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak baimenik gabe aldatuz gero, litekeena da laguntza emateko ebazpen hori aldatzea edo bertan behera uztea. Erakunde onuradunak Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren V. tituluan aurreikusitako arau-hauste eta zehapenen araubidea bete beharko du.

2.– Adjudikazio-ebazpenean zehaztutako epean eta moduan egin beharko dira jarduerak. Alabaina, dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintza teknikoak edo ekonomikoak aldatzeko moduko gorabeherarik gertatuz gero, betiere aldaketak dirulaguntzaren helburuei eragiten ez badie, funtsezko alderdiei edo laguntza emateko erabakigarriak izan diren alderdiei, onuraduna zehazteari, edo hirugarrenei kalte egiten ez badie, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak behar den aldatze-ebazpena emango du eta emandako dirulaguntzen zenbatekoak birdoitu. Erakunde edo pertsona onuradunek soberan jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako prozeduraren arabera (dekretu horrek ezarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra; halaber, horiek kudeatzen parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak finkatu zituen).

3.– Finantzatutako jardueraren balantze ekonomikoa -gastu eta diru-sarrera guztiak kontuan hartuta- aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa denean, sortutako gastu errealari egokituako zaio dirulaguntza, era proportzionalan.

14. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea eta justifikazio-prozedura.

1.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean jasota egon beharko du. Alta eman edo hirugarren interesduneko datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrengeontzako erregistro telematikora jo beharko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu/>

2.– Eskatutako prestakuntza-ekintza amaitu eta 15 eguneko epean, eta onartutako prestakuntza-jardueraren kostua ordaindu aurretik, erakunde onuradunek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Justifikazioko memoria ekonomikoa, egindako jarduerak eta horien kostua jasotzen dituen, III. eranskinaren arabera. Memoria honetan jasotzen diren langile propioen gastuek gastuaren

kontzeptuari eskainitako ordu kopurua eta gastua egozten zaien langileei esleitutako izena eta orduko kostua (euro) izan beharko dituzte.

b) Jasotako gastuen fakturak edo egiaztagiriak.

c) Prestakuntza-jardueraren aprobetxamendu-ziurtagiria, IV. eranskineko ereduaren arabera.

d) Ikastaroa eman duten irakasleen laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako titulazioa egiaztatzen duen agiriaren kopia eskaneatua.

e) Inkestak, V. eranskineko ereduaren arabera, prestakuntza-jarduerako ikasleek beteta.

3.– Prestakuntza-jarduerarako onartutako aurrekontuan aurreikusitako gastuak justifikatzeko, fakturak eta froga-balioa duten bestelako agiriak aurkeztuko dira, merkataritza-trafiko juridikoan baliozkotasuna dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak, aurrekontuan islatutako gastua benetan egin dela egiaztatzeko. Fakturek harreman zuzena eduki beharko dute diruz lagundutako jarduerekin, eta, horietan, finantzatu daitezkeen kontzeptuak agertu beharko dira, bereizita eta banakatuta. Fakturekin batera fakturak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira. Agiri horiek ezarritako epeetatik kanpo aurkeztu ahal izango dira, aldez aurretik Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari eskatuta. Langile propioen gastuak nominen eta gizarte-aseguruen bidez justifikatu ahal izango dira.

4.– Fakturetako edo agirietako gastuaren data ezin da izan 2023ko azaroaren 30a baino geroagokoa.

5.– Erakunde onuradunei ordainketak egiteko, baldintza hauek bete beharko dira:

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

– Itzulketa bidezkoa dela adierazten duen ebazpenaren bidez zordunak ez izatea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitako eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozeduretan sartuta ez egotea.

15. artikulua.– Jardueren jarraipena eta kontrola.

Ebazpen honetan ezarritakoa betetzen dela bermatzeko eta egiten ari diren eta egin diren jarduerak egiaztatzeko, beharrezkoak diren jarraipen-jarduerak gauzatuko dituzte aldi-aldi Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko langileek. Ildo horretan, erakunde onuradunak behartuta egongo dira Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako informazioa ematera.

16. artikulua.– Ez-betetzeak, erantzukizunak eta dirua itzultzeko prozedura.

Dirulaguntzaren erakunde onuraduna Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako egoeraren batean egonez gero, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan ezarritako kasuetako batean, edo Dirulaguntzei buruzko Araudi Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91., 92. eta 93. artikuluetan ezarritako kasuren batean, edo ebazpen honetan eta aplikatu daitezkeen gainerako arauetan nahiz dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako arauak bete ezean, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpen bat emango du, eta, horren bidez, honako hau adierazi:

ordaintzeko dauden kopuruak jasotzeko eskubidea galdu duela erakunde onuradunak, eta, hala badagokio, ordura arte jasotako zenbatekoak eta dirulaguntza ordaintzen denetik aurrera sortutako legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkiola, hargatik eragotzi gabe bidezko beste akzio batzuk, betiere abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoa betez (dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren bermeen eta itzulketen araubide orokorra arautzen du eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta obligazioak ezartzen ditu). Diru-kopuru horiek sarrera publikotzat hartuko dira, dagozkien legezko ondorioetarako, eta erantzukizun-araubide hau aplikatuko zaie: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 64. artikuluan ezarritakoa eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 52. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoa.

Dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak partzialki betetzen ez badira, emandako laguntzaren zenbatekoa azkenean justifikatutako jardueretara egokituko da, ebazpen honen 10. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

17. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan jasotako eginbeharrak eta deialdi honekin zehaztutakoak bete beharko dituzte erakunde onuradunek. Erakunde onuradunek egunean eduki beharko dituzte zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2.g) artikuluan ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaileak egunean eduki beharko du dirulaguntza itzultzearen ziozko betebeharren ordainketa, bai onuradun izaera eskuratzeko, bai onuradun izaerari eusteko, harik eta emandako dirulaguntza likidatzen den arte.

2.– Erakunde onuradunek bete egin beharko dituzte Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. eta 16. artikuluetan ezarritako betebeharrak, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51. artikuluko 1. apartatuan jasotakoak.

3.– Prestakuntza-jardueren testuinguruan sortutako argitalpen, liburuxka, agiri eta euskarri informatiko guztietan, oro har, berariaz aipatu beharko da Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak diruz lagundu izana, hauetan xedatutakoa betez: abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan jasotako Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Araudia (dekretu horren bidez arautzen da Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburua) eta Lehendakartzako idazkari nagusiaren 2013ko uztailaren 2ko Ebazpena, zeinen bidez sartzen baitira azken aldaketak Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan (2013ko uztailaren 31ko EHAA, 145. zk.).

4.– Erakunde onuradunek, hala badagokio, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari erraztasunak emango dizkiote, egindako jarduerak ikuskatzeko.

5.– Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari aldeztu jakinarazi beharko zaio diruz lagundutako prestakuntza-jardueretan aurreikusitako baldintzetan egon den aldaketa oro.

18. artikulua.– Datuen tratamendua.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta honako izen hau duen tratamendu-jardueran sartuko dira: Prestakuntza.

Arduraduna: Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

2023ko martxoaren 3a, ostirala

Xedea: Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak antolatutako edo/eta diruz lagundutako ikastaro eta jardunaldien kudeaketa eta ziurtapena.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean burututako eginkizun bat betetzeko.

Hartzaileak:

- Ogasun publikoa eta zerga-administrazioa.
- Legezko interesdunak.
- Ikastaroak egin dituzten langileak dituzten enpresak.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk baliatzeko ere.

Informazio gehigarria: gure webgune honetan kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/063000-cap2-eu.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra:

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa:

https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honetan berariaz ezarrita ez dagoen guztian, arau hauetako xedapenak aplikatuko dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauetarako buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa, eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraz, beronen aurka, hautazko berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean; bi kasuetan, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da hori.

2023ko martxoaren 3a, ostirala

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Barakaldo, 2023ko otsailaren 22a.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
MARÍA LOURDES ISCAR REINA.

I. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN DESKRIBAPENAREN EREDUA

Ikastaroaren izena:	
Ikasle-kopurua:	
Irakastorduak:	
Ikastaro-mota (aurrez aurrekoa edo online):	
Ikastaroaren arduraduna:	
Ikastaroa emateko aurreikusitako datak (1):	
Jarduera-sektore hartzailea(k):	
Irakasleak	
Izen-abizenak	Titulazioak (2)
Ikastaroko ikasgaiak	
Edukiak (3)	Barne (Bai/ez)
Lana eta osasuna: arrisku profesionalak. Arrisku-faktoreak.	
Lanak eragindako kalteak. Laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak. Lanak eragindako beste patologia batzuk. Osasuna eta lan-arriskuak genero-ikuspegiarekin.	
Oinarritzko arau-esparrua lan-arriskuen prebentzioaren arloan. Arlo horretako eskubideak eta betebeharrak.	
Segurtasun-baldintzei loturiko arriskuak.	
Laneko ingurumenarekin lotutako arriskuak.	
Lan-karga, nekea eta lanarekiko asegabetasuna.	
Arriskuen kontrolerako oinarritzko sistemak. Taldeko eta banakako babesa.	
Larrialdi-eta ebakuazio-planak.	
Langileen osasunaren kontrola.	
Arrisku espezifiko sektorialak eta horien prebentzioa.	
Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako erakunde publiko eta pribatuak.	
Prebentzio-lana antolatzea: oinarritzko errutinak.	
Dokumentazioa: jaso, landu eta artxibatzea.	
Lehen sorospenak.	

(1) Berariaz gogorarazten da dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo bi hilabeteetan garatu beharko direla diruz lagundu daitezkeen jarduerak, eta ebazpen hau eskabideak deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituen emango dela.

(2) Irakasleek Laneko Arriskuen Prebentzioko Goi Mailako Titulazioa edo Laneko Arriskuen Prebentzioko Masterra izan beharko dute gutxienez.

(3) Ikastaroan emango diren edukiak eskuineko zutabearen jaso (bai/ez).

2023ko martxoaren 3a, ostirala

II. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN AURREKONTU EKONOMIKOAREN EREDUA

IRAKASTORDU-GASTUAK

Langile propioen irakastordu-gastuak	
Kontzeptua	Zenbatekoa (eurotan)
Azpikontrataturako irakastordu-gastuak	
Kontzeptua	Zenbatekoa (eurotan)
	Irakastordu-gastuak, guztira

KUDEAKETA-GASTUAK

Langile propioen kudeaketa-gastuak	
Kontzeptua	Zenbatekoa (eurotan)
Azpikontrataturako kudeaketa-gastuak	
Kontzeptua	Zenbatekoa (eurotan)
	Kudeaketa-gastuak, guztira
	Gastuak, guztira

AURREIKUSITAKO DIRU-SARRERAK (*)

Kontzeptua	Zenbatekoa (eurotan)
	Diru-sarrerak guztira

(*) Hala badagokio, aurreikusitako diru-sarrerak esleitzea: beste laguntza eta dirulaguntza batzuk, matrikulen sarrerak, prestakuntza-materialaren salmenta, etab.

2023ko martxoaren 3a, ostirala

III. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIOKO MEMORIA EKONOMIKOAREN EREDUA

ESKOLA GASTUAK

Langile propioen irakastordu-gastuak (1)					
Izena eta abizenak	Kontzeptua edo zeregina	Kostua/ordua edo Faktura zk.	Dedikazioa (orduak)	Urteko ordu-kopurua (hitzarmenekoak edo kontratukoak)	Zenbatekoa (eurotan)
Azpiktratatutako irakastordu-gastuak					
Kontzeptua				Faktura zk.	Zenbatekoa (eurotan)
Irakastordu-gastuak, guztira					

KUDEAKETA-GASTUAK

Kudeaketa-gastu propioak (2)					
Izena eta abizenak	Kontzeptua edo zeregina	Kostua/ordua edo Faktura zk.	Dedikazioa (orduak)	Urteko ordu-kopurua (hitzarmenekoak edo kontratukoak)	Zenbatekoa (eurotan)
Azpiktratatutako kudeaketa-gastuak					
Kontzeptua				Faktura zk.	Zenbatekoa (eurotan)
Kudeaketa-gastuak, guztira					

BESTE LAGUNTZA BATZUETATIK ETA EGINDAKO EKINTZATIK BERTATIK ERATORRITAKO DIRU-SARRERAK

Kontzeptua	Jatorria	Zenbatekoa (eurotan)
Diru-sarrerak, guztira		

Gastuak guztira (kudeaketa + irakastegunak - sarrerak)	
--	--

(1) Honako hauei dagozkien gastu propioak kontsignatzea: ikastaroa emateko langile propioen gastuak, eduki didaktikoak garatzea, eta, hala badagokio, ikasleentzako dokumentaziotik eta lokalen alokairutik eratorritako gastuak.

(2) Honako hauei dagozkien gastu propioak kontsignatzea: ikasleak erakartzeko eta matrikulak kudeatzeko langile propioen gastuak eta ikastaroaren publizitateak eragindako gastuak.

2023ko martxoaren 3a, ostirala

IV.ERANSKINA

IKASTAROEN APROBETXAMENDU-ZIURTAGIRIAREN EREDUA

..... jaunak / andreak (NAN zenbakia:), beherago adierazitako ikastaroaren arduraduna den aldetik, berariaz egiaztatzen du zerrendatzen diren langile autonomoek ikastaro hori egin dutela, ondo aprobetxatuta.

Ikastaroa:	
Ikastaroaren datak:	
Ikastaroa ematen duen erakundea:	
Irakastorduak:	
Irakasleak (Izena eta abizenak):	

IKASLEEN ZERRENDA

Izen-abizenak	Izen komertziala (1)	IFZ	Probintzia (2)	Sexua (G/E)

(1) Langile Autonomoen Araubide Berezia azaltzen den izen komertziala, halakorik badago.

(2) Langile Autonomoen Araubide Berezia agertzen den langile autonomoaren jarduera profesionalaren helbideari dagokion probintzia.

Data:

Sinadura:

2023ko martxoaren 3a, ostirala

V. ERANSKINA

GOGOBTETASUN-INKESTAREN EREDUA

Mesedez, baloratu 0tik 10 puntura jarraian azaltzen diren alderdiak, haututako aukeran jarrita:

Ikastaroko saio guztietara joan ahal izan zara? BAI EZ

Ikastaroaren erabilgarritasunaren balorazioa: baloratu ea zure ustez ikastaroa erabilgarria izan dakizukeen zure jarduera profesionala garatzean segurtasuna hobetzeko.

Batere ez baliagarria	Erabilgarria									Oso Erabilgarria
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Ikastaroaren balorazioa: baloratu edukia (oro har), iraupena, argitasuna, dokumentazioa eta irakasleak.

Oso Txarra	Zuzena									Oso ona
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Baloratu ikastaroa egiteko ikasleen esku jarri diren bitartekoak eta instalazioak: gela, bitarteko teknikoak (proiektoreak, pantailak, ekipo informatikoak eta abar), material didaktikoak, giro-baldintzak eta abar.

Oso txarrak	Zuzenak									Oso onak
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Baloratu ikastaroan emandako kontzeptuen alde aurretiko ezagutza: baloratu zein neurritan ezagutzen zenituen lehendik ikastaroan landu diren gaiak.

Ezer ez	Pixka bat									Dena
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Jarraian, eskertuko genizuke, ikastaroa hobetzeko oharren bat baduzu edo aurreko galderaren batean ñabardurarik azaldu nahi baduzu, hala jakinaraz diezaguzula. Zure laguntza behar dugu hobetzeko. Egiten dizkiguzun gomendioak kontuan hartuko ditugu: